



Pentsatu, hausnartu...

Zure balio eta lehentasunei buruz.

Etorkizunean nolako osasuna izango
duzula uste duzu?

Zer-nolako zainketak jaso nahiko
zenituzke?

Arretaren Plangintza Partekatua lagungarria da paziente eta erabiltzaileen balioak eta lehentasunak zein diren jakiteko eta errespetatzeko, baldin eta ez badira gai zer nahi duten adierazteko.

Hitz egin horri buruz zure senideekin edo maite dituzunekin. Hitz egin zure medikuarekin eta erizainarekin: prozesuaren berri emango dizute, eta, egoki baderitzozu, **Aurretiazko Borondateen Agiria** idazten eta erregistratzen lagunduko dizute.



Pentsatu zure **bizi-kalitateari** buruz

Zuretzat, zein gauza dira garrantzitsuak?

Zerk du baliorik handiena?

Zerekin gozaten duzu?

Zein gauzak ematen diote balioa zure bizitzari?

Zuretzat, zer da BIZI-KALITATEA?

Zeren falta nabarituko zenuke gehienbat, horretarako gaitasunik ez bazenu? Oinez ibiltzea, hitz egitea, jatea, pentsatzea, etab.

Osasuna eta osasun-zainketak

Baduzu gaixotasun edo osasun-arazorik?

Nola eragiten dizu eguneroko bizitzan?

Zure ustez, nolako bilakaera izan dezake zure gaixotasunak (baldin baduzu) edo osasun-egoerak?

Nola imajinatzen duzu zeure burua hemendik bost edo hamar urtera?

Informazioa eta erabakiak hartzea

Zenbateraino jakin nahi duzu zure gaixotasunak edo osasun-egoerak nolako bilakaera izango duen etorkizunean?

- Oinarrizkoa soilik
-
-
-
- Ahal den gehiena

Parte hartzen al duzu zure osasunari eragiten dioten erabakiak hartzen?

- Nahiago dut nire medikuak eta erizainak nire ordeztu erabakitzea
-
-
-
- Neuk erabaki nahi dut informazioa jaso ondoren

Nahiko zenuke zure senideek edo maite dituzunek erabakiak hartzen esku hartzea baldin eta zuk ezingo bazenu?

Nork nahiko zenuke zure ordeztu hitz egitea baldin eta zu hitz egiteko edo nahi duzuna adierazteko gai ez bazina?

Esan al diezu pertsona horiei zer nahiago duzun?

Pentsatu **bizitzaren amaierari** buruz

Pentsatu laguntza edo zaintza eman diozun, oso gaixo dagoen edo hilda dagoen senide edo ezagun batengan. Zure ustez, nolako arreta jaso zuen?

Alderdi positiboak _____

Alderdi negatiboak _____

Ahalik eta denbora gehiena bizi nahi duzu, ala zuretzat garrantzitsuagoa da bizikalitatea bizitako urte kopurua baino?

Zer-nolako tratamendu eta zainketak jaso nahiko zenituzke?

Zein nahiago izango zenuke ez aplikatzea?

Pentsatu al duzu inolako tratamendurik ez aplikatzea eta mina edo sufrimendua arintzen dutenak soilik ematea nahiko zenukeen egoeraren batean?

Bizitzako azken etapan egongo bazina...

- Ez nuke jakin nahiko bizitzeko denbora gutxi gelditzen zaidan
-
-
- Jakin nahiko nuke zenbat denbora gelditzen zaidan eta nolako bizi-kalitatea izango dudan

Ba al daukazu bizitzaren hondarrea zaudela kontuan hartzea nahiko zenukeen sinesmen erlijiosorik edo balio kulturalik?

Heriotzari buruz pentsatzean, zerk kezkatzen zaitu?

Hil aurretik zerbait egitea edo komunikatzea beharko zenuke?

Non nahiago izango zenuke arreta jaso bizitzako azken asteetan?

Gustatuko litzaizuke organo- edo ehun-emaile izatea?

BAI

EZ

Nahiko zenuke jendeak hil ondorengo beste alderdi batzuei buruz dituzun lehentasunen berri izatea? (hileta, asistentzia erlijiosoa, ehorzketa edo errausketa, etab.)

